




Astekaria



elgoi

Noizko ibaia garbi?




M A P F R E

ASEGURU ETXEA

San Frantzisko 40 • ☎ 74 05 82 • 20870 ELGOIBAR



Glaso poligonoa • Tel. 74 44 30/Faxa 74 44 36 • ELGOIBAR



GRUA 24 ORDUTAN ☎ (908) 77 34 74

Zure autoa erreparatzen
dizuen bitartean ordezkoa lagako dizugu



PAGOAGA S.A.

Iturgintza

- ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN

 **GAS INSTALATZAILEA,**
IG4 baimenarekin.
GAS NATURALA ETA PROPANOA

☎ 74 02 79 - 74 05 12

San Antolin Kalea 13. ELGOIBAR

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegí, Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Mikel Artola, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Amaia Gorostiza, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Javi León, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Enplegurako Euskal Institutoa

Datorren azaroan, 17 urte beteko ditu INEM-ek langabeziaren aurka Gobernu zentralak sorturiko oinarritzko tresna bezala sortu zenetik, langabetu kopurua jaitsi ordez, gehituz joan da, Espainiako langabetu tasak europear batzbestekoa bikoizten duelarik, arazo nazional nagusiena bilakatu arte. Gorabehera honegatik INEMaren funtsezko berrikuntza bat gauzatzea eskatu du gizarteak, lan merkatuaren eraldaketa zabal eta sakonetara moldatzeko ahalmen eskasa erakutsi baitu Institutuak.

Kontestu honetan behin eta berriz eskatu izan da Euskal Autonomi Elkartetik enpleguaren aldeko eragiketa zabal bat bideratu ahal izateko bitarteko administratibo eta instituzionalen esku-aldaketa. Arrazoiak - GERNIKAKO ESTATUTOAREN betekizunak juridikoki eskatzen duenaz gain- ez dira falta. Izan ere, espainiar ekonomia, internazionalizazio bide bat hartu duen heinean, banatuagoa bihurtzen ari da pausoka, zati erregional eta sail ezberdinetan banatuz, nor bere arazo


espezifiko eta ezberdinekin lan merkatu eta hazkuntza beharren mailan.

Honen arabera, ez da harritzekoa Estatu Zentraleko gobernu ezberdinek gaurdaino finkatu izan dituzten enplegurako politika uniformeak, espainiar konstituzioak markatutako helburuen erdiespenetan erabat mugatuak ageri izana. Konstituzioak, lanerako eskubidea onetsi eta gero, enplegu osoa lor dadin politika bat eratzeko kargu ematen die botere publikoei. Ez gaitu harritu behar, halaber, INEMa lan merkatuaren behar ezberdinetara moldatzeko, intentu ezberdinek izan dituzten porrotak.

Bitartean, hala ere, Euskal Herrian hain larriki jasaten ari garen ekonomi krisia industri suntsiduraren prozesu motel eta geldiezina eragiten ari da, zeinen ondorioak-lanpostuen urritasun hazkorra- ezin baitezake axolagabeko utzi Eusko Jaurlaritza.

Antonio Matias

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

Aste honetako kexa BARRENi zuzendua dago. Emakume batek deitu digu BARREn Arnaldo Otegi egindako elkarrizketa "benetan lotsagarria" izan zela esateko. "Elgoibartarrok ez daukagu horrelakorik zertan irakurri".

Mintxetako zuzendariak deitu digu IMHko teniseko pista behar den bezala erabiltzen ez dela salatzeke. Pista itxita dagoenean ezin dela sartu gogorarazi nahi du eta bertan pertsonak bezala ibiltzeko gomendioa luzatu nahi luke.



TXALOK

Haur batzuek Errosario kaleko jaien antolatzaileak txalotu nahi dituzte, jaiek irauduten astean zehar buruhandi eta erraldoiekin oso ondo pasa baitute.

"Impuesto Revolucionario" a

HBkoek diotenez, ETAK "impuesto revolucionario" delakoa poltsikoa bete samar duten gutxi batzuei baino ez omen die eskatzen.

Baina nik ez dakit "impuesto" hori eskatu dieten enpresariak beraien irabaziak (badituzte, behintzat) nola banatzen dituzten, hau da, ez dakit langileak gustura dauden ala ez, ezta zer nolako inbertsioak egin edo egiteko dituzten ere langileen lanpostuak ziurtatzeko, enpresa berrituaz. Eta HBk, dirudienez, ere ez. HBk dakiena zera da: poltsikoak bete samar dituztela. Ildo honetatik jarraituz, Aldaia jaunak nola ote du poltsikoa? Ah! Baina txalet batean bizi omen da.

Kontu hauek jakitean, nire buruari galdetzen diot, ea iraultza ez den etxetik hasi behar. Ea HBkoek ez duten kontsekuenteak izan behar.

Hala bada, badira, ugari gainera, HBri botua eman eta inguruetan, baita Espainian zehar ere, bigarren etxebitza dutenak, eta ez eguneroko bizimodua egiteko, oporrak pasatzeko baizik.

Beraz, HBkoei proposamen bat: hasi ezazue IRAULTZA ZEUON ETXEETATIK.

Juanjo Baztarrika

Galdera batzuk

Aita, ama, zergatik ETAK hiltzen duenean "hiltzaile terroristak" dira eta Ertzantzarena "muerte natural" deitzen zaio?

Aita, ama, zergatik HB eta Gestoren mobilizazioak ETBn agertzen dira lazo urdinaren parean jartzen direnean soilik,

hainbat eta hainbat urte gauza bera egiten ari direnean?

Aita, ama, zergatik lazo urdindunek Rosa Zarra eta hainbat pertsona jipoitzen zutenean Ertzantza txalotzen zuten?

Aita, ama, zergatik daude hainbat gazte kartzelan eta GALEkoak kalean?

Aita, ama, zergatik jipoitzen ditu Ertzantzak gazte, emakume, intsumiso, irakasle, ikasle, baserritar, arrantzale eta langileak?

Aita, ama, zergatik esaten du PNVk Guardia Civil-a beharrezkoa dela Euskal Herrian?

Aita, ama, zergatik ETAK drogatrafikatzaileak hiltzen dituenen, hauek pertsona jator eta onak bihurtzen dira politiko gehienentzat?

Aita, ama, zergatik daude presoak dispersaturik eta ez Euskal Herrian, beraien legeak esaten duen bezala?

Aita, ama, zergatik ordaindu behar dio Euskal Herriak bilioi bat pta.ko kupoa Espainiari, eta gero, Sigma ixten dute?

Aita, ama, zergatik torturatzen dute Euskal Herrian eta ez dago lazo urdinik hauentzat?

Aita, ama, zergatik bota dute Gaztetxea eta ez dute jartzen ezer ere ez gazteentzat Siadecoren inkestari bizkarra emanaz?

Aita, ama, zergatik zazpiak bat izanez, zatituta gaude?

Aita, ama, zergatik defendatzen du ertzantzak bandera espainola Bilboko jaietan?

Aita, ama, zergatik Errotatzoko kontzentrazioetara ez datoz PNV eta PSOEko zinegotziak?

Aita, ama, zergatik gobernatzen dute PNVk eta EAK GALEkoekin batera?

Honelako galderak herri honetan bai ume eta bai helduek maiz egiten dizkiete euren buruei.

Kurutz Castrillejo

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Pepita Unzueta laga digu aste honetako erretratua. Esan digunez, Aita Agirre eskoako ikasleak dira bertan agertzen direnak. 1932-33 ikasturteari dagokion erretratua da. Hona hemen nesken izen-abizenak: Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: **Mertxe Arregi** (†), **Matilde Azkoitia**, **Mari Luz Elorza**, **Pakita Gurrutxaga**, **M.Luisa Lher**, **Maria Barrutia** (†), **Beatriz Gabilondo**, **Juanita Arrieta**, **Lucia Gabilondo** eta **Maria Barrutia**.

Erdiko ilaran: **Teresa Arrieta**, **Miren Armendia**, **Bibiana San Martin**, **Genoveva Arrieta**, **Paule Conde**, **Apolonia Arregi**, **Lucia Alkorta**, **Marcelina Ansola**, **Maria Arriola** eta **Maritxu Irusta**.

Beheko ilaran: **Rosa Unzueta**, **Josefa Agirregomezkorta**, **Pepita Irusta** (†), **Purita Mujika**, **Maritxu Aranzabal** (andereinoa), **Bibiana Garmendia**, **Juanita Ostolaza**, **Teodora Larreategi**, **Maria Rementeria** eta **Kontxita Azkue**.

Eserita: **Pepita Unzueta**, **Maria Oteiza**, **Guada Mujika** eta **Begoña Latxa**.

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92

Deba,

ibai desertua

Sarritan salatu izan dute talde eta kolektibo ekologistek zein erakunde publikoek Deba ibaiaren egoera penagarria. Hala ere, nahi baino sarriago ikusi izan dugu gure herria alderik alde zeharkatzen duen ibaia kolore ezberdinez tindatua. Askotan, enpresen hondakin toxikoak, azidoak, komuneko zikinak, zakar poltsak eta etxean traban dauzkagun objetuek ibaian amaitzen dute, igerian, urak aurrera eraman ezinda, "zakartoki" aproposagorik egongo ez bailitzan. Gipuzkoako Aldundiak 1994an egindako azterketaren emaitzen arabera, Deba ibaia da Gipuzkoako ibaien artean kutsadura mailarik altuena duena.

Aranzadi Zientzien Elkartek burutu du txostena eta 1994an sei bailara ezberdin zeharkatzen dituzten ibaiak eta ibai-bazterrak aztertu dira: Oiartzun, Bidasoa, Uru-mea, Oria, Urola eta Deba. Guztira 54 estazio edo gune ezberdin ikertu dira. Urtean zehar bi

MIGEL SANCHEZ (Teknimap Ambiental enpresako arduraduna)

"Deba ibaian arrainak ikusiko ditugu 2000."

- Deba ibaia, Gipuzkoako kutsatua. Kezkatzeko modukoa, ez?

- Metalen kutsadura motari dago-kionean bai, baina organikoan kasuan badaude ibai kutsatuagoak. Kezkagarria da bai, dana dala, urte batzuetatik hona asko garbitxu da. Oin badaoz ugarixuak edo igelak eta txorixak ere agertu diaz. Hori horrela da enpresa asko hasi diazela hondakin toxiko eta arriskutsuak deposituetan batzen, gero gestio egokixa emateko. Enpresa bakoitzak tratamiento espezifikoko bat eman bihar die hondainei.

- Legeak esaten du horrek horrela izan behar duela?

- Bai, 88ko legia da hondain toxikua eta iaz Jaurlearitzak atera

zaban dekretu bat hondakin "inerteei" buruz, ha da, toxikoak ez diazen tailerretako hondakinei buruzkua, hondarrak, obretako eskonbruak...

- Betetzen al dira lege hauek?

- Gutxi. Gobernuak ez ditxu multa asko jarri. Enpresarixuari laguntzeko fasian dao oin Gobernu. Gertatzen dana da enpresetako kutsaduraz gain, badaola beste kutsadura klase bat, etxietakua. Badao saneamendu plan bat, teorikoki 2000. urterako kolektoriak eta depuradoriak eitzeko. Etxietako eta enpresetako komunetako urak etab. kolektore horretara jungo diaz eta gero depuradora batera. Baina bestelako ur toxikoak trata-

tzeko enpresa bakoitzak beste depuradora bat jarri biharko dau.

- Gipuzkoako Patzuergoak egingo ditu depuradorak.

- Bat Elgoibarren eingo dabe, Lerun-Morterika inguruan, meandrua eitxen daban tokixan. Inguruko ur fekal guztiak batuko ditxu eta horrek karga kontaminante haundixa kenduko dio ibaxari. Aldia igarriko da dudarik gabe. Behin etxietako zikinak bideratzen badia, Udaletxiak exijidu ahal izango die enpresei euren hondakinentzako soluzioa topatzia.

- Irtenbide horiek topatzeko dago Teknimap Ambiental?

- Bai, depuradora bat jarri aurretik enpresa baten kutsadura mota



■ ■ **Bailarako etxeetako zakarrentzako depuradora bat eraikiko omen dute Elgoibarren.**

alditan egin da uraren azterketa, udaberrian eta uda garaian. Deba, Gipuzkoako ibairik kutsatuena dela dio ikerketak.

Deba ibaia

Deba bailara Gipuzkoako bigarren bailara handiena da, azalerari dagokionean %25 hartzen du. Saneamendurako eta depuraziorako inbertsio

txikiena jaso duen arroa da eta irtenbide egokia topatzeko zailtasun handienak dituena.

Jaiolekua Gatzagan du. Ibaiaren sorgunean "habitat" delakoa eta uraren kalitatea "ezin hobea" da, izokinak hazteko modukoa. Kalitate biologiko altua dauka eta bakarra bada ere, arrainik

aurki daiteke bertan: amurrua. Baina 10-15 kilometro eskasera, Eskoria-tza, Aretxabaleta eta Arrasate parera heltzean, gauzak erabat aldatzen dira. Zati honetan kutsadura organikoa (fosfatoak, amonioa, DQO, DBO5...) agertzen da, uraren kalitatea benetan eskasa delarik. Elementu toxikoak

ere badira: metal astunak eta zianuroak. Ibaiaren zati honetan, urak ez ditu arrainak bizitzeko baldintzak betetzen. Hemendik aurrerako herrietako isurketak eta isurketa industrial guztiak kutsagarriak dira: Oñati errekarrenak, Bergarako isurketak, Ego errekarrenak, Elgoibarkoak eta azkenik Mendarokoak.

- EGO ERREKA

Ego errekarren ura bereziki kutsatua dago txostenaren arabera. Gipuzkoako errekarrik kutsatuena da. Kutsagarri organiko (fosfatoak, amonioa...) eta kutsagarri toxikoen (kromoa, nikela, zink-a, zianuroa...) mailak oso altuak dira. Ego errekarren azken zatia kanalizatutakoa da. Honek zailagoa egiten du etorkizunean ibaia errekueratzea.

urte inguruan"

aztertzen dugu. Kutsadura hori minimizatzerik daon ikusi eta prozesua hobetzen darian geratzen dan kutsadura horrentzako depuradora bat jartzen da. Enpresa batean 30 milioiko aurrekontuko depuradora bat jartzeko asmua zauan eta guk estudixua ein eta gero, 3 milioikua ipini dou.

- Gero eta gehiago dira joaten zaizkizuen enpresak, ala...

- Sentsibilizazio falta oindik haundixa da eta krisixak euki dau eragina. Gainera, askok multinazionalekin eitxen dabe lan eta hauek ingurugiro legislazioa betetzeko eskatzen hasi zian oin hamar urte. Europa eta Amerika aldetik datorren exijentziak diala eta enpresa

haundixak batez ere hasi diaz legislazioa betetzen.

- Elgoibarren badugu arazo bat.

- Enpresetako taladriniarena. Jendeak uste du ez dela toxikoa baina taladrinak dakan olixua ur-azalian geratzen da eta oxigenua pasatzen ez bada, arrainak eta belarrak hil eitxen diaz. Gu taladrinia tratatzeko proiektu bat prestatzen ari gera oin. Taladrinia tratau ein bihar dala pentsatzen hasi bihar dia Elgoibar-ko enpresak.

- Ekologia beraz, moda bat baino gehiago da, ez?

- Bai, bestela mundua jan eingo dou. Energia, ura eta munduko baliabidiak aurreztu ein bihar diaz, dana da kate bat.

- Ezagutuko al dugu Deba ibaia garbi?

- Ezagutu izan det eta ezagutuko det. Arrainekin eta garbi. 2000 edo 2005 urte inguruan. Pentsaizu, hilabete bateko etenakin, abuztuan, Altzolan aingirak eoten badiaz, urte batzuk pasauta...



- ELGOIBAR

Txostenak dionaren arabera, elementu organikoaren kontzentrazio maila handitu egiten da Elgoibarren. Metal astunen presentzia are nabarmenagoa da. Elgoibarko zatian ez da arrainak bizi izateko moduko baldintzarik betetzen, kalitate biologikoa txarragoa delarik uda partean.

- MENDARO

Deba ibaiaren bukaera aldera, Mendarora helduz, azterketaren emaitza fisiko-kimikoak hobekia dira. Ura kutsatua egoteaz gain, Mendaron, ibaiaren ildoan egindako obrak kalteak sortarazi ditu ibaiaren "habitat" delakoa. Kalitate biologikoa baxua da baina aurreko lekuetan baino hobea. Lau arrain mota aurkitu dira: amurraina, ezkailua, aingira eta korrokoa. Arruntea aingira da (%72). Arraroa bada ere, amurrain gutxi batzuk badaude, guztiak Kilimon erreka bakaeran.

Txostenean agertzen den informazioaren arabera, Deba ibaiaren ildo guztian zehar dauden autodepurazio sistemak antzuak

dira, isurketa kutsagarriek depura daitekeen kantitatea gainditzen baitute. Ibaian egindako kanalizazioak kontuan hartuz gero, ibairik kaltetuena dela esan daiteke. Etorkizunera begira, ia ziurra da gauzek ez dutela onera egingo kutsadurari dagokionean. Depurazio lanei ekiten ez bazaie Deba ibaiak Gipuzkoako kutsatuena izaten jarraituko duela dio txostenak, Deba ibaiaren ur erresidualen arazoak konponbidea izan dezan, funtsezkoa izango delarik lehenik eta behin isurketa industrial toxikoen arazoa konpontzea.



■ ■ Isurketa toxikoen arazoa konpontzea ezinbestekoa da.

Saneamendu plana

Gipuzkoako Ur Patzuergoak Deba ibaiaren saneamendurako plan integrala onartuko du hil honetan. Bailaran martxan jarriko diren depuratzailen kokapena jasotzen da bertan. Depuratzaila hauek herrietako ur zikinak eta ur industrialak garbituko dituzte eta Deba Behean 5.000 milioi pta.ko inbertsioa egitea suposatuko du.

Elgoibarren jarriko da depuratzaila bat, Eibar, Ermua, Soraluze eta Mallabiako ur zikinak eta Elgoibarkoak ere hartuko dituenak. Elgoibarkoaz

gain, Mendaron ere beste depuratzaila txiki bat jartzeko asmoa dute, eta beste bat Mutrikun. Deba Garaia dagokionean Bergaran eraikiko dute ur-depuratzaila.

Eraikitze-lanak bailaraka egingo dira hiru urteren buruan. Elgoibarren 1999an hasiko dira depuratzaila eraikitze lanak, eta bi milioi inguruko inbertsioa suposatuko du. Urtebete lehenago ibaiaren mozketak egingo da. Honen kostua 626.000 pta.koa da.



DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

Baserriko haragietan berezia



Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Ezagutuko al dugu ibaia garbi?



CONSUELO MENDIZABAL
43 urte, etxekoandrea

Nik usten dot baietz ze gero eta kontzientzia gehixo dao. Danok ahalegin gehixo ipintzen dou, herrixa bera ere garbixaua ikusten da.



MIGEL UBIRIA
76 urte, jubilatua

Ez dakat esperantzarik zaharra naizelako. Ezautu naban errekoa garbixa, bainau ere eitxen nitzan! Baina hortarako, gitxienez 10 urte pasatu biharko dia.



SONIA ROJANO
22 urte, pelukera

Zaila izango da nahiz eta aspaldian ibaia lehen baino garbiagoa ikusten den. Halere, jendeak zaborrak erre kara botatzen jarraitzen badu...



DAVID GARRIDO
13 urte, ikaslea

Bai, zeren orain paroa dago eta fabrikak kentzerakoan kontaminazioa kenduko da. 40 urte barru edo garbixa egongo da depuradorak jartzen badituzte.



ADORACION GARRIDO
54 urte, etxekoandrea

Baietz uste dut, poliki-poliki. Gauza asko egin beharko dira, obrak eta abar. Eta denok ados jarri beharko dugu inork zakarririk bota ez dezan.



SANTIAGO ACOSTA
50 urte, trokelista

Ezagutu izan det eta ezagutuko dut baina urte asko beharko dira. Ura ezezirik ibaiondoa ere kutsatua dago horregatik, dena dragatu beharko litzateke.

**ASESORIA
COOP**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

TXURI BELTZ

Taberna

BULTZ

San Franzisko 38

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

■ Egunkariaren irakurleen afaria

Euskaldunon Egunkariak urrian egingo duen itxuraldaketa dela-eta, herri bakoitzeko irakurleen arteko afaria antolatu du Egunkariaren aldeko batzordeak. Urriaren 20an, ostirala, gaueko 9,30etan izango da afaria Olaizaga kiroldegian. Izena emateko Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko 74 16 26 zenbakira deitu. Afariaren zenbatekoa 1.500 pta.koa da.

■ Folk kontzertua

Datorren sapatuan, hilak 22, Musika eta Dantza Fundazioaren eskutik folk kontzertua izango da Herriko Antzokian. Joko duen taldearen izena zehazterik ez dugun arren, musikariak Suizatik datozela aurreratu digu Musika eta Dantza Fundazioko arduradunak. Saioa gaueko 22,30etan hasiko da.

■ Nafarroa Oinez 95erako autobusak

Igandean, hilak 15, Tuteran ospatuko den Nafarroa Oinez 95era joateko autobusak antolatu ditu Elgoibarko Izarrak. Izena ematerakoan 1.000 pta. ordaindu beharko dituzte bazkide ez direnek eta bazkideek, berriz, 700 pta. Autobusak igande goizean aterako dira Sigmako zubitik.

■ Lapurretak dendetan

Igande gauean, hilak 8, astelehen goizaldera bitartean, Errosario eta San Bartolome kaleko bi dendetan lapurretan egin zuten. Zerrailak bihurtuz sartu ziren lapurrak dendetan. San Frantzisko eta Pedro Muguruzako beste hiru komertziotan ere lapurtzen saiatu ziren arren ez zuten sartzerik lortu. Udaltzaingoko arduradunak esan digunez, "lapurreta hauek txikiak izan dira, dirutan ez dute gauza handirik ostu eta ez da atxiloturik egon".



Gorbeiaren ingurune ekologikoa gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu hil honen 22ra arte irekita egongo den erakusketa didaktikoari esker. Argazkietan bada ere, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri, Dima, Igorre, Otxandio, Orozko eta Arratiako beste herri batzuk ikusi ahal izango dira. Gorbeia ingurune berdea izateaz gain, Bilbo Handiaren "birika" eta atsedenerako eskualdea ere bada. Erakusketaren asmoa eskualdearen kultura eta historiaren ikuspegi erreala eskaintzea da, bai landare, abere eta piztia, bai bertan burutzen diren kirol ezberdinak, bai eta ibilaldi ezberdinak erakustea ere.



Pilota partidu bikainak jokatu ziren pasa den sapatuan Plaza Handiko frontoian Errosario kaleko jaien barruan. Lehen partiduan, infantilen kategoriakoan, Bergara eta Murua bikoteak 18 eta 14 irabazi zion Loiola eta Gasteaini. Beteranoetan Agirrebeña eta Txurrukak forma onean daudela erakutsi zuten markagailua 22ra jartzea lortu eta Loiola eta Oteizak 12 tantu baino ez baitzituzten egin. Azkenik, afizionatuetan, iparraldetik etorritako Aranburu eta Zugasti 25 eta 14 nagusitu ziren Beraza eta Odriaren aurka.

HBren zergen inguruko erasoei erantzun die EAJk

Joan den astelehenean EAJ/PNVk prentsurrekoa eman zuen zergen inguruan. Azken egunotan HBren ahotik jaso dituzten erasoen aurrean, zera azaldu zuten: "herritarrek urte osoan zehar jo dezakete Udaletxera zergei edo beste edozerri buruzko azalpenak jasotzeko. Hemendik aurrera, ple-noan zergen igoera onartu eta 10 eguneko epean boletinean azaldu ondoren, herritarrek 30 egun dituzte erreklamazioak egiteko". Bestalde, Isaak Loiolaren hitzetan, "92-95 urtetan behin baino ez dira igo zergak eta kasu horretan IPCa bakarrik gehitu zitzaizen".

Ur patzuergoa

Urari dagokionean, berriz, "aurten izango duen igoerak urteko eta kontsumitzaile bakoi-tzeko 2.076 pta.ko igoera baino ez du suposatuko. Gure ibaietako, hon-

dartzetako eta kontsumitzen dugun uraren kalitatea igo nahi badugu, inbertsioak egitea ezinbestekoa da. Inbertsio horiek askoz errezago egin ditzakegu eskualde mailan eta horretarako dago Patzuergoa. Par-taide izateagatik Udaletxeak kanon bat ordaindu behar du urtero eta kanon hori herritarren artean orsaintzen da". Bukatzeko, Giller-mo Garate alkateak adierazi zue-nez, "HB benetan herritarren diru gastuez hainbeste arduratzen bada, kontuan izan dezala 93-95 urte bitartean 18 milioi gastatu zirela kaleetako hormak pintadaz eta kar-telez garbitzen. Bestalde, PP zergak mantendu edo jaistearen alde agertu da, horrek lanpostuak sortu eta herritarren egoera ekonomikoa hobetuko duelakoan. Nik uste hori baino zerbait gehiago ere egin beharko dela".



Salbea urteroko ohitura da Errosario kaleko jaietan. Azken urteetan euriaren eraginez edo bazirudien jende gutxiago hurrertazen zela baina aurten izan dugun eguraldi epelak, makina bat kaletar eta herritar erakarri ditu. Horien guztiek batera eta Itxaropena abesbatzaren laguntzaz, Errosario Kaleko Amabirjinari salbea eskaini zitzaion. Salberik gabeko jaiak ez lirakeke gauza bera izango Errosario kalean.

Parrokiako oharrak

Aurten sendotzako 2. urtea egingo dutenek datorren asteazkenean, hilak 18an (erderaz) eta 19an (Euskaraz) izango dute ikasturte hasiera. Gazte Klubean izango da iluntzeko 9etan. 3. urteari ekingo dietenek, berriz, asteazkenean hilak 18, toki berean baina arratsaldeko 7,30etan. Bestalde, Parrokiako Zuhaitz Astialdi taldeak OHko 8. mailakoentzat eta BBBko 1. mailakoentzat urriaren 27an hasiko ditu bere ekintzak, arratsaldeko 7,30etan Gazte Klubean. Eta OHoko 6. eta 7. mailakoentzat urriaren 28an arratsaldeko 4etan. Era berean, urriaren 29tik aurrera Gazte Kluba irekita egongo da arratsaldeko 4etatik 8ak arte.

Literatur aldizkaria

1994. urteko Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak delakoan saritutako lanak biltzen dituen Laiotz literatur aldizkaria kaleratu berri da. Ohi denez, herriko ikastetxe guztietako ikasleei ale bana emango zaie. 1994ko irabazleen izenak: prosa atalean, Jone Olaizola, Ane Guilló eta Luzia Zubiaurre. Bertso paperetan, Sare Gurrutxaga, Kepa Mendikute eta Iraitzi Agirreazaldegia.

Txankakuaren zozketa

Pasa den asteazkenean, hilak 4, Txankakua Merkataria eta Zerbitzarien Elkarteak 10.000 pta.ko bost eros-txeke banatu zituen. Saritutako pertsonak ondoko hauek izan ziren: Mari Carmen Mella, Mari Carmen Arizaga, Maite Ajuria, Armando Velez Salegi eta Nerea Sierra.

Pilar eguna

Pilar ikastetxeak Amabirjinaren eguna ospatuko du bihar, hilak 12. Ikastetxearen egun handi honetan meza izango dute eguerdian eskolako patioan. Segidan Itxaropena abesbatzak abestuko du eta eguna bukatzeko, lunch-a izango da gurasoentzat.

Sidiahmdat Mohamed Lamin:

“Lanbide Eskolak independentzia gehiago emango digu”

Sidiahmdat Mohamed Lamin Suilem. Ez da, ez, bat ere erraza bere izen osoa ahoskatzea eta, beharbada, horrek bultzatua, jendeak normalean Sidi deitzen duela aitortu digu. 33 urte dituen gizon hau saharauia da, errefuxiatuen kanpamentu batean bizi da, Rabunin.

Kuban, beka bati esker, Itsas garraio eta esportaziorako injienerutza ikasi zuen eta gaur egun, Rabunin eraikitzen ari diren lanbide eskola bateko zuzendaria da. Azken hiru asteotan Elgoibarren izan da, LHI eta IMHn gestioa nola daramaten ikusi eta gero bere herrian aplikatzeko.

- Zertan Elgoibarren?

- Lanbide Eskola bat eraikitzen ari gara Rabunin Nazioarteko Solidaria-tea ONGari esker. Horiek Euskal Herrian duten egoitzaren bidez, Elgoibarrera etorri eta hemen nola lan egiten duten ikusteko gonbidapena luzatu ziguten.

- Eta?

- Oso esperientzia aberasgarri izan da. Batez ere gestio aldetiko funtzionamendua aztertu dut eta harrিতa geratu naiz. Partehartze handia dago bai irakasleen bai eta ikasleen artean ere. Eta hartu behar diren erabaki guztiak demokratikoki hartzen dira, eta hori oso garrantzitsua da

- Zer irakatsiko da zuen eskolan?

- Besteak beste, automozioa, elektrizitatea, eguzkiaren energia, fabrikazio mekanikoa, informatika... Proiektu honekin independenteagoak izango gara. Orain hainbat gauza konpontzeko eta sortzeko kanpotik etorri behar zaizkigu. Lanbide Eskola sortzen dugunean, gu geu gai izango gara hori guztia egiteko.

- Ikasleak neskak eta mutilak?



“Guretzat ume asko izatea obligazio bat da. Gutxi gara eta borroka honetan, zenbat eta gehiago, hobe”

- Bai, nahi duten guztiek dute aukera. Nahiz eta herrialde arabiarra izan, emakumeek eskubide asko dituzte. Egoera berezia bizi dugu eta horrelako kasu batean ezin gara banatzen hasi. Emakumezkoek ekonomia, osasuna, administrazioa... daramate. Bizitza, nolabait, emakumearen esku dago. Gizonen eginbeharra, defentsa da.

- Zein da zuen egoera?

- 20 urte daramatzagu gerran. 1991n su etena sinatu genuen Marruekokin eta 1992rako erreferen-

dum bat zegoen jarrira. Zoritxarrez, Marruekos atzeratzen joan da eta oraindik ez dugu ezer lortu. Guk, herrialde independentea izan nahi dugu. Lortu artean, jendearen laguntza beharrezkoa dugu. Munduan ez dezatela ahaztu herri saharauia existitzen dela.

- Nola bizi zarete?

- Nazioartetik jasotzen dugun laguntza ezinbestekoa zaigu. Halere, kontuan izan behar da desertuan bizi garela baina berez lur antzua den toki batean

bitzita sortzea lortu dugula. Barazkiak lantzen ditugu, bestetak beste, auto-kontsumorako adina badaukagu... Gure Estatua garatzen ari gara nahiz eta exilioan egon. Bizitzeko era bat tokatu zaigu eta horren barruan ahalik eta baldintzarik onenak izaten saiatzen gara.

- Ume asko izaten dituzue, ez?

- Guretzat obligazio bat da goiz ezkontzea eta ahalik eta seme-alabarik gehienak izatea. Oso gutxi gara, ez gara milioi batera iristen. Zenbat eta jende gehiago izan, orduan eta hobe, maila guztietan eta, batez ere, berriz gerran sartuko bagina, borrokatzeko gizonezkoak izateko.

- Nolakoa da desertua?

- Gauzez oso polita, zoragarria. Egunez bero handia egiten du, batzuetan 50 gradura iristen da temperatura.

- Azken galdera, pribilegiatuak garela iruditu zaizu?

- Ez, ez dut inpresio hori jaso. Euskal Herrian ere badaude arazoak eta beharbada horrek bultzatuta, herririk solidarioena dela iruditu zait. Laguntza handia jasotzen dugu hemendik.

Triste BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 17. GEHIGARRIA



Uriaren 12an Pilar eguna ospatzen da. Elgoibarko ikastetxearentzat jai eguna izaten da eta horren inguruan hainbat ekintza antolatzen dituzte. Ikasleek ezetik, gurasoek ere hartzen dute parte eta helburua eskolaren eta gurasoen arteko harremana sendotzea da. Goizean meza izaten da, egunari hasiera emateko, haurrei goxokiak banatzen zaizkie eta nagusientzat lunch-a izaten da. Egun konpleto konpletoa batzuek eta besteek elkarrekin ondo baino hobeto pasatzeko.

Tristeia

Emakume batek, txoridendara sartu eta kaiolan dagoen txoriaren izena galdetzen dio saltzaile gazteari. Erantzuten dio mutilak:

- Auskalo

Eta emakumeak:

- Oi, zein auskalo polita!



Jakitunen eskutik

Noiz hasi behar dira haurrak eskolan?

Azken 25-30 urteetan gizarteak jasan dituen aldaketen artean, emakumearen integrazioa lan munduan aipatuko genuke. Ondorioz, gurasoek seme-alabekiko zituzten beharrei erantzuteko, irtenbideak topatu behar izan dira.

Gaur egungo egoerari helduz, Erreforma martxan jarri zenetik, hona hemen haur hezkuntzaren banaketa:

- Lehenengo zikloa: 0-3 urte
- Bigarren zikloa: 3-6 urte

Hezkuntz sistemaren lehen urratsa da honako hau eta neska-mutil guztien garapen integrala lortzea du helburu. Lehenengo urte hauen garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da, izan ere eragin handia baitu dimentsio ezberdinen garapenerako, hala nola, garapen soziala, kognitiboa, komunikazioa, motrizitatea, oreka pertsonala (autono-

mia, garbiketa, gorputz heziketa, afektibitatea...). Horrela bada, adin honetako haurrak aukera ezberdinen aurrean aurkituz gero, esperientzia berriak ezagutzeko, beste haurrekin harremanak sortzeko eta beste hainbat gauzatarako bidean aurkitzen dira.

Badaude zenbait elementu (ratioa, ekipamendua, harreman mota, iharduerak...) adin bakoitzaren ezaugarriekin batera aztertu behar direnak plangintza eta antolaketa osatzerakoan.

Bukatzeko, heziketako lehenengo urte hauek haur eskolan ezezik familia giroan ere landu daitezke ezaugarri minimoak kontuan izanda. Azken finean, gurasoen esku dago beraien seme-alabak eskolara zenbat urterekin bidaliko dituzten erabakitzea. Beti ere, kontuan izanda derrigorrezko hezkuntza 6 urterekin hasten dela.



MARIA JESUS ANSOLA
PEDAGOGOIA

Ze iritzi daukazu*piper egitea*.....ri buruz?



Dro ondo! Eskolara joan nahi ez baduzu sinadura bat esin...

eta listo!

MARI MAR TAPIA, 13 urte.



Ez dakit zer den.

OSEL SANCHEZ, 8 urte.



Dro garzki iruditzen zait bestela zuzendaria harrapatzen zaitu

eta akabo!

UNAI ALONSO, 11 urte.




Vleqt Mcpwgn
13 wt vg

Galde debalde

- 1- Lotarako panpinik eramaten al duzu?
- 2- Zein da daukazun tesororik handiena?
- 3- Kolekzionatzen al duzu zerbait?
- 4- Noren argazkia izan nahi zenuke?
- 5- Goenkaleko zein pertsonaia izan nahi zenuke?
- 6- Zein ipuin kontatzen dizu amak oheratzerakoan?
- 7- Zerekin parekatuko zenuke zure burua?
- 8- Plastilina ala buztina?
- 9- Esaidazu gezur bat.

1. Ez, txikitan osito bat neukan baina oin ez.
2. Xakea jokatzeko taula.
3. Futbolisten kromoak. Guerrero eta Etxeberria dira nere faboritoak.
4. Julen Guerrerorena, dedikatuta.
5. Ez dut sekula ikusi Goenkale.
6. Ez dit ezer kontatzen.
7. Ez dut sekula hortan pentsatu.
8. Plastilina, zerbait egin eta gero, apurto eta beste zeozer egin daitekeelako.
9. Atzo Ameriketara joan nintzen oinez.



Gqtcpq Scrdgt lc
10 wt vg

1. Bai, Kaskarin izeneko ipotx bat.
2. Nere diarixua. Hirugarrena hasi naiz idazten eta kutxa batean gordetzen dot, giltzak in itxita.
3. Mineralak. Hilian behin tiokin juten naiz erakusketetara eta han erosten ditxut.
4. Nere birramonarena, sukaldaria izan zan eta liburuak argitaratu zitxun.
5. Ane, guapiena da eta.
6. Nik kontatzen dizkiot nere buruari.
7. Monstruo batekin, batzutan nahiko gaiztua nahiz eta.
8. Buztina, eskuak zikintzeko.
9. Modelo bat naiz.

Zer da...*miraria*...?

MANUEL DEDEZ 12 wt vg



"7. maila aprobatzeko beharko dudana."

AMAIA AZKUNAGA 7 wt vg



"Niretzat miraria da hilda dauden guztiak piztea, eta beste mirari bat da zaldiak hegan egitea."

JULEN SAN JUAN 12 wt vg



"Gertatzen den fenomeno sinesgaitza. Batzuek Jainkoak eginiko zerbait dela esaten dute eta beste batzuek montaje bat dela"

NEREA SANCHEZ 9 wt vg



"Miraria da, adibidez, etxe bat bi segundutan egiten ikustea. Harrituta geratzen zara."

CARLOTA CASTRILLO 7 wt vg



"Niretzat miraria da bihar ez egotea eskola eta amak txakur bat erostea."

UNAI ETXEBERRIA 8 wt vg




"Altxorraren antzerakoa. Zuk eskatutakoa betetzea."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



INAKI ONAINDIA

7 urte

Bizikleta bat eta beste bat eta beste bat. Bat galizerakuan beste bat edukitzeko. Eta, Banestoko ekipo konpletoa. Horrela, ziklista profesionala izango nitzan eta hortik atarako naban bizitzeko dirua.

ELIXABETE ZABALA

6 urte


Dirua eta koilar haundi bat, nik nahi naban guztietan ipintzeko. Dirua bankora eramango naban eta aterako naban fresazko txikiak eta txupatxusak erosteko. Amari belarritxakuak erregalatuko nizkion eta aitxari zapatak.



3. Asmakizunak:

- Ez du hankarik eta badabil, ez da idia eta badu adarrik, ezin presaka joan izango balu beharrik.
- Oroimen eta usaimen handikoa larru gogorreko aberea, sudurra ere izugarrizkoa munduko luzeena berea.
- Eva ere Paradisuan eraman zuen tentaziora, urtean behin bakarrik aldatzen du alkandora, ez nuke nahi nik sartu neure altzora.

4. Letren ordena jarraitu eta aurkitzaile bat izango duzu.



Erantzunak: 1- Xabi Gomez, apaiza. 2- Zein altxor topatu nahi zenuké. 3- Barraskilia, elefantea eta suga. 4- Cristóbal Colon.

Begoña Zulaika

Batzoki jatetxeko sukaldaria



- **Zer dela eta sukaldari?** ▶ Beste oportunitaderek ez gendualako euki.
- **Janaria prestatu ala jan?** ▶ Biak egitia gustatzen jaku.
- **Argiñano ala Subijana?** ▶ Subijana.
- **Gosari on bat ala bazkari on bat?** ▶ Bazkari on bat nahixo.
- **Siestarik?** ▶ Hori zaila da.
- **Beraz, "munduan nahi duenak luzaroan bizi oiloekin ohera eta txoriekin jaiki".** ▶ Hori ezin dot egin. Goizian goiz jaikitzen naiz baina gabian ezin izaten naiz beti goiz erretiratu.
- **Zure lanaren morroi sentitzen al zara?** ▶ Bai, batzuetan bai. Baina beste ezer ez dago eta aurrera segi behar.
- **Bezeroekin uso eta sukaldean otso al zara?** ▶ Ahal doten guztietan ahalegintzen naiz sukaldian ere uso izaten baina badakizu...
- **Bapo jan ondoren kontzientzia txarrik?** ▶ Batzuetan bai.
- **Zure espezialitatea?** ▶ Bereziki legatza, piper berdiak eta makailaoa kokotxekin.
- **Jatorduetan onena postrea?** ▶ Nik pasa dezaket postreerik gabe.
- **San Sebastian gaua ala San Bartolome eguna?** ▶ Jai egitera juteko San Sebastian gaua.
- **Txuletia patatekin balego?** ▶ Egixa esan, nahixao dot tortila bat entsaladarekin.
- **Inoiz izan al da ospetsurik Batzokian jaten?** ▶ Ez nua esatera.
- **Bakar baten izena emango diguzu Begoña.** ▶ Bueno ba..., esate baterako, Arzallus.
- **Sekula probatu ez dozun janari bat?** ▶ Pizza eta horrelakoxe gauzak.
- **Gustatzen ez zaizun zerbait?** ▶ Dana gustatzen jata.
- **Begietatik ala ahotik jaten duzu?** ▶ Bietatik.
- **Nor bidaliko zenuke oiloak perratzerara?** ▶ Inor ere ez baina oraindik ez dot ikusi nik oilorik perratzen!
- **Ni, ere ez?** ▶ Ja, ja, ja...

AMAIA GOROSTIZA

DEBA IBAIA

DOINUA:

Arratsaldeon lehenbazik

Aste honetan dudarik gabe serio xamarra da gaia ibaiak duen zikinkeria dela nahikoa etsaia hau garbitzea dudarik gabe gehienontzako da nahia denon artean garbi dezagun azkenik Deba ibaia

Proiektu asko eginak dira hortaz ezin naiz kexatu baina urteak pasa ta pasa ta oindik ez da amaitu gure laguntzaz egin dezagun gauza honekin bukatu ta azkenean Elgoibarrentzat guk ibai garbi bat sortu.



KEPA MENDIKUTE



Elgoibar-Maltzaga obrak amaitzekotan daude

Badirudi Elgoibar eta Maltzaga arteko obrak laster amaituko direla. Urrairen 21ean dago zehaztuta data Diputazioko Errepide Sailak adierazi digunez. Berez, uztailaren 21erako amaituta egon behar zuen errepide berriak baina zenbait arazo suertatu direla eta dexente atzeratu dira azkenean.

Egunero errepide hori gurutzatu behar duten hainbat eta hainbat gidarik dagoeneko beren kezka eta haserrea agertu dute, ustez amaituta egon behar zuen bidea oraindik ere obretan baitago eta horrek kotxe ilarak sortzen baititu, atzerapenak bai eta bidea deseroso egin beharra ere. Dirudienez, lurra ez da hasiera batean uste zen bezain egonkorra eta honek zenbait arazo ekarri ditu.

Galdiano enpresak dauka obren ardura eta arrazoi bat edo beste dela eta, hormak eraiki behar izan dira nahiz eta hasierako proiektuan ez egon definituta, beste gauza batzuen artean. Era batera edo bestera,



■ ■ Sigman hasi eta Maltzagara arte luzatzen dira obrak.

dagoeneko aglomeratua botatzen ari dira errepide gainean. Euri asko egingo balu litekeena da berriz ere zertxobait atzeratzea hainbat gauza ezin baitira eguraldi umelarekin

**Atzerapenak eta obren
nondik-norakoa aldatu
beharrak aurrekontua 90
milioitan puztu du**

egin. Zorionez, azken asteotan eguraldia benetan ona dugu, epela eta eguzkitsua. Esan bezala, aglomeratua bota, seinaleak jarri eta azken ukituak ematea baino ez da geratzen.

Era batera edo bestera eta horrelakoetan geratzen den bezala, atzerapenak eta obren nondik-norakoa aldatu beharrak aurrekontua 90 milioitan puztu du, guztira 461.074.859 pta.ko kostua izango duelarik.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

PUBLIZISTA BAT BEHAR DA

Gida komertzialerako publizitatea lortzeko.

HIRU HILABETERAKO LANA

Interesatuak deitu 74 16 26 telefonora.

Urriaren 20a baino lehen.

MIREN
arrandegia



Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

San Bartolome kaleko etxe barrokoa

■ Etxe barroko dotore hau XVII. mende aldera eraiki zen Ermuaran izeneko kalean, gaur egun San Bartolome dena.

■ Oinplano laukizuzena du. Beheko solairuaz gain beste bi pisu ere baditu eta estalkia bi isurkitara zabaltzen da.

■ Fatxada nagusiaren behe partea harlanduz eraikia dago eta goikoa zarpeatua.

■ Baoguneak bi ardatzetan banatzen dira, beheko solairuan ate dinteldua dago, ataburua kararrizko dobelez egina dago eta bebarru dotore bati ematen dio sarrera. Beste b. dendaren beharreta aldatuta dago. Lehe solairuan balkoi hegalduna eta jarra burdinez forjatua d. eta bi ate ditu. Bige solairuan beste bi balkoi daude, aurrekoaren era berekoak. Bigarren solairuan, baita ere armarri handi bat d. bi balkoien artean. Armarriak hiru dor gaztelu bat irudikat

■ Fatxada nagusiare teiltategal hegaldua eginiko dekorazioa bi ilaratan antolatua eta medaloiez apaindua.

■ Etxe hau eraiki aurretik, XVI. menderako, toki berean beste

etxe bat zegoen, Andikanoko Juan Gonzalezena, hain zuzen. Etxe hura 1616an suak hondatu zuen. Gaur egun ezagutzen dugun etxearen jabea XVIII. mendearen bukaeran Martin Antonio Maguna zen eta XIX.ean Lizarriturri familia. Azken garai hartan etxeak beheko solairuan bebarrua, denda eta korta zituen.


PELLO ARRIETA



Alberto Ortueta Zapataria (1902-1974)



- 1902. urtean jaio zen, abuztuaren 5ean, Bergaran.
- Gazte-gaztetatik hasi zen zapatarri langintzan. Batean eta bestean ikusitakoarekin eta bere kabuz ikasitakoarekin zapatarri trebea bihurtu zen.
- Elgoibarren jarri zuen lehendabiziko zapatadenda San Bartolome kalean ireki zuen. Orduan 1935. urtea zen.
- Beranduago zapatadenda zaharra itxi eta berria irekitzea erabaki zuen. Hasierako dendatik gertu baina beste kale batean, San Frantziskon, gaur egungo Ortueta zapatadenda dagoen lekuan hain zuzen.
- Elgoibarren ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen, gaur egun negozioarekin jarritzen dutenak.
- Zaltetasunen artean ehiza eta arrantza dira aipagarrienak. Bietatik gogokoena zuena, ehiza zen.
- 1974. urteko abenduaren 30ean hil zen.



MOTZAK

Ehizalekuen zozketa

Paseko hegaztiak ehizatzen 18 postu edo lekuren zozketa egiteko asmoa dauka Mendaroko Kilimon-Zahar Ehiza Elkarteak. Mendaroko Alkortamendi eta Erentzamendi izeneko lekuetan kokatuta daude postuok eta zozketak egunero egingo dira azaroaren 11ra arte gaueko 9etan. Hortaz, Garagarza auzoan elkarteak duen egoitzara jo dezakete zozketan parte hartu nahi dutenek.

Txirrindulari irteera

Datorren igandean, hilak 22, Elgoibarko Lagun Taldeak negu sasoiko txirrindulari denboraldiari hasiera emango dio. Neguko entrenamenduen lehen eguna izango den horretan inguruko mendietara egingo dute bizikleta gainean irteera. Nahi duten guztiak gonbidatuak daude parte hartzera. Irteera goizeko 9,30etan izango da Plaza Handian.

Pilar Egunean partiduak jokatuko dira

Pilar Eguneko jai-zubia dela-eta, hainbat partidu ostegunera aurreratu dira. Hala nola, C.D. Elgoibar Eskubaloi Taldeko kadete eta jubenil mailako mutil taldeek bihar, hilak 12, jokatuko dituzte partiduak. Futbitoaren kasuan, ostegunean ezezik igandean ere jokatuko dira partiduak Urсандiko kanpoetan. Futbol partiduak, asteburuan bakarrik jokatu ordez, ostegunean ere C.D. Elgoibar elkarteko lau taldek, infantilek, jubentilek, neskek eta 1. errejonaleko tal-



Juanjo Etxeberria:

"Edadiakin sufritzen ikasten da"

■ Zenbat kirol egiten dituzu?

- Bost bat: pilota, igeriketa, mendia, korrika eta txirrindularitza. Danetik piskatxo bat. Udaberrian bizikleta eta mendia gehiago eta neguan korrika eta igerixan. Azkenengo 22 urtian eitzen dot kirola.

■ Kirola egiteko beharra duzu?

- Bai, behar psikiko bat, hamar egun kirola ein be eongo banintz ezingo ninduten ingurukuek aguntau.

■ **Maratoiak eta Duathloiak egin izan dituzu?** - Bi aldiz Elgoibarko duathloia eta behin maratoi bat. Triathloia ez dot sekula ein, nahi dot baina biziotxuak ere badauzkat eta...

■ Kirola eta parranda beraz...

- Kirola eixia gustatzen jata baina juergatxuak ere bai. Erre eitzen dot eta gainera eguneroko bizio txikiak ez diala laga bihar uste dot.

■ Zein lasterketatan gusturago?

- Triathloian hobeto, ze maratoia azken batian jardun eta jardun da, besterik ez, erresistentzia.

■ **Nahaste-Borrastean ez duzu hutsik egiten.** - Ez. Hori bai izaten dala "a morir", ze Nahaste Borrastia hain da motza, lasterketa guztietan a tope jun bihar zerala. Erronka moduko bat da neretzat.

■ **Zein kirol egiten duzu gustuen?** - Igeriketa adibidez itsasuan eitzen dot gustorao igerilekuan baino. Baina gehixen korrika eitzen dot, urte



osuan zehar eitzen dot eta. Bizikletia ere abuztuan laga eitzen dot febrerora arte.

■ **Ba al dago probatu nahiko zenukeen kirolirik?** - Rafting-a eta holako gauzak, bai.

■ **Beterania esperientzia al da?** - Bai, edadiakin batez ere erresistentzia lortzen dozu eta sufritzen ikasten da. Baina konpetitzeko argi dao gaztiak indarra eta potentzia daukala. Pilotan agian beterano batek euki leike bentajia "perro viejo" izatiren, baina gaztia beti gaztia.

■ **Karakatera igoeran parte hartzeko asmorik?** - Ez, holako pruebak oso gogorak dia eta ni ez nabil maila horretan.


■ **Kontaiguzu egin duzun astakeriaren bat.** - Uda batian, Andrés Gabilondo, Juan Beneitez eta hirurok Galiziarra bizikletan jun ginan.

Bueltakuan, kirolari nahiko atipikuak gerez, goizeko 6,30ak arte parranda ein eta gero, Laredotik Elgoibarreraino 120 km. eta piku ein genitxun geratu gabe demaseko ajiakin.

• Adina: 41
• Kirola eta gero? Zerbait edan eta lasai egon
• Futbolzalea? Ez
• Zergatik moztuko zenuke bibotea?
Ezerrengatik ez. Ez naiz ikusten bigoterik gabe



KEMEN Belardenda
MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31



Hiru talde izango ditu aurten

Gero eta jende gehiagok egiten duela kirola beldurrik gabe esan daitekeen zerbait da. Olaizaga Igeriketa Eskolako igerilari kopuruak ere gora egin du iaztik hona. Talde bakarra zuen eskolak duela bost urte sortu zenean. Bi talde izan zituen ondoren, eta aurten hirugarren bat antolatu behar izan dute uste baino haur gehiago joan zaizkielako partaide izateko desioarekin. Aurten 40 ikasle baino gehiago izango ditu.

Igeriketa Eskolako kide izateko baldintza bakarra igeri egiten jakitea eta 5 urtetik gorakoa izatea da. Gutxieneko jakintza batzuetatik abiatuta, teknika ezberdinak lantzeaz gain, abiadura eta erresistentzia hobetzea dute helburu. Iazko denboraldian Gipuzkoako hainbat herri ezberdinetako txapelketetan izan ziren igerilari elgoibartarrak, hala nola, Oñatin, Eibarren, Legazpin, Altzan, Bergaran, Ordizian etab.

Entrenamenduei dagoekienean,

bi dira entrenatzaileak: Guillermo Manson ermuarra eta Mirari Osoro elgoibartarra. Astean hiru aldiz entrenatzen dute eta txikienek, berriz, astean birritan. Dagoeneko hasiak dira txapelketetarako prestatzen baina azaroaren erdialdera arte ez dute igeriketa frogarik izango. Txapelketetan arituko diren igerilariak bederatzi urtetik gorakoak izango dira. Txikiak, ordea, bost eta sei urtekoak, ez dira oraindik horrelako topaketetara joaten.



Argazkikoak: Atzeko ilaran, Asier Ajuriagerra, Asier Otegi, Guillermo Manson (entrenatzailea), Aingeru Osoro, Naiara Martin eta Iker Astigarra. Bigarren ilaran, Mirari Osoro (entrenatzaile laguntzailea), Amaia Revert, Ines Segura, Esther Ajubita, Judith Ajubita eta Javier Egea. Hirugarren ilaran, Andoni Mendez, Iñigo Otero, Iñigo Canales, Andres Egea, Joseba Etxeberria eta David Feijoo. Aurrean, Andoni Mendez, Andoni Schmidt, Julen Arri Illaga eta Josu Azpiazu. Falta dira: Julia Fernandez, Julen San Juan, Jokin Salegi, Gorka Otero, Ainhoa Figueiredo, Xabier Gil, Leire Hernandez, Aihana Martinez, Sara Pelaz, Josu Mendez, Jon Gabilondo, Izaskun Esnaola, Aitor Arosa, Miriam Arosa, Ane Zabaleta eta Alberto Fernandez.

KiROL

EMAITZAK

Eskubaloia

Senior mutilak:

Txankakua Elgoibar 22 - Zestua 17

Areto Futbola

2. maila

Elgoibar F.S. 3- Urretxu 2

1. maila

Elgoibar F.S. 3 - Lasarte 0

Futbola

Haundi 1 - Aloñamendi 1

Antoniano 1 - Elgoibar 0 (1. errej.)

Añorga 3 - Elgoibar 3 (Jubenilak)

Elgoibar 6 - Hernani 1 (Kadeteak)

La Salle 3 - Elgoibar 3 (Infantilak)

Intxaurren 0 - Elgoibar 1 (Neskak)

Pilota

Kluben arteko Txapelketa

Arrieta/Eguren (Soraluze) 22 -

Orbea II/Karmel (Lagunak) 13

Balzola/Loiola (Lagunak) 22 -

Pello/Sarriegi (Ataun) 8

AGENDA

Eskubaloia

12 osteguna, Kiroldegian

10,30 Elgoibar - Bergara (Kadete mutilak)

12,00 Elgoibar - Leizaran (Jubenil mutilak)

Futbitoa

12, osteguna

Arbitraia: P.S.K.

10,00 Aldavas - Rebel Urbi

11,00 S. Braga - Arrejuntaos

Sanroketarra - Uda Berri

12,00 Orbea - Roke

Kosakos- Ametsa

15, igandea

Arbitraia: Arrejuntaos

10,00 Lucky Luke - Aterpe

11,00 Pedruskos - Berrogei Duro

S. Karapola - S. Pitxote

12,00 P.S.K. - Oraiko Disco

King Kong - Karkis

Futbola

12, osteguna

10,15 Elgoibar - Bergara (Infantilak)

12,00 Elgoibar - Aretxabaleta (Jub.)

16,00 Elgoibar - Gure Ametsa (1.

errej.)

17,45 Elgoibar - Alde Zaharra (Neskak)

Elgoibarko Areto Futbola

Elgoibar Areto Futboleko lehen eta bigarren mailako taldeak irailaren amaieran hasi zuten Liga. Astean hiru aldiz entrenatzen dute Kiroldegian eta ligako partiduez gain, beste txapelketa batzuek ere antolatzen dituzte, hala nola, Gabonetako "Elgoibar Hiria Saria" eta gaur egun, Urasandiko Futbito Txapelketa.

Ostiralero gaueko 22,00ak eta 23,00etan jokatzeko dituzte ligako partiduak Kiroldegian. Bai zuzendaritzako kideak bai eta jokalariek ere, buru-belarri aritzen dira klubeko zereginetan, arbitraiak direla, antolakuntza kontuak, Gabonetako txapelketa... Elgoibarko areto futboleko jokalariek gehienak areto futboleko txapelketetan aritukoak dira, bai eta Urasandiko Futbito Txapelketan ibilitakoak ere. Klubeko presidentearen, Manuel Rey-ren esanetan, "nahikoa zaila gertatzen zaigu jokalariek berriak gureganatzea, onenak C.D. Elgoibar Elkarteak bereganatzen baititu futboleko jokatzeko eta inoiz, kantera sortzearen, jubenetan txapelketak antolatu izan ditugu."

Diru kontuen atalean, milioi bateko aurrekontua izaten dute urteko. Besteak beste, Udalaren laguntzak, bazkideen kuotek (urteko 3.000 pta), dendari eta norbanakoen diru laguntzek, partiduetako sarrekek eta Kiroldegiaren laguntzak



Argazkian: Atzean tente, ezkerretik hasita: Jon Pozuelo (lehen mailako taldearen entrenatzailea), Iñaki Benitez, Carlos Conde, Gary Muñoz, Pedro Galarraga, Oscar Díez, Gorka Muñoz, Manu Rey, Oscar Muñoz eta Joserra Iriarte (bigarren mailako taldearen entrenatzailea).


Makurtuta: Aitor Elizburu, Gorka Azpilikueta, Jonathan Aldazabal, Andres Valenciaga, Hector Garrido, Antonio García, Jose Luis Toledano eta Unai Uzkudun. Falta dira: Xabi Alberdi, Josu Luis Gonzalez, Juan M. Navarro, Alberto Garate, Gorka Mujika, Angel Romero, Mikel Ortiz eta Jon Revert.

osatzen dute klubaren diru-sarrerak.

Bi taldeko kluba

San Pedro Areto Futbol elkartearen izenaz sortu bazen ere, gaur egun Elgoibar Areto Futbola deitzen da kluba. 1989. urtean eratu zen ekipo bakarra zuelarik. Urtebete beranduago sortu zen bigarren taldea eta berehala bi taldeak kategoriaz igotzea lortu zuten. Gaur egun, lehen mailan dago bat eta bestea bigarren mailan. Iazko denboral-

dian txapelketen play-off-a jokatu zuen lehen mailako taldeak eta azkenean bosgarren postuan geratu zen. Bigarren mailako taldeak kategoriaz jaisteko arriskuan egon bazen ere, play-off-ean garaile geratu zen kategoriari eutsiaz. Bere mailako Kopako txapelketan irabazle izan zen.



Hilaren 19an hasiko da osasun eta prebentzio programa irakaskuntza ertainean

Eusko Jaurlaritzak eta Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Sailak antolatuta, "Osasunerako Hezkuntza" programaren seigarren edizioari ekingo zaio hilaren 19tik aurrera. Prebentzioa modu orokorrean ulertuta, sasoiako pelikulen mezua bitartez, ertainetako ikasleak eta hauen gurasoak osasun gaitan trebatzea da programaren asmoa.




Lehen pelikula hilaren 19an emango da Herriko Antzokian. Bi emankizun izango dira ikasle eta irakasleentzat, goizeko 9,30etan eta 12,00etan. Etika eta erjilio klaseen programaren barruan sartzen da pelikularen emankizuna eta, saioaren ostean, pelikulan agertzen diren osasun-gaiei buruz hitz egiten dute ikasle eta irakasleek. Urtean zehar bost pelikula ikusteko aukera izango dute, tartean "Nell", "La niña de tus sueños", "Historias del Kronen", "Una historia del Bronx" eta "Círculo de amigos", azken hau bakarrik

euskaraz.
780 ikasle

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak programa hau burutzeko aukera eskaintzen die udal ezberdinei. Herri bakoitzeko udalak, kasu honetan Elgoibarkoak, zerbait ordaintzen du pelikulak eta materiala erabiltzearentzen. Elgoibarren 780 ikaslek hartuko du parte aurten programa honetan eta hortaz, 445.000 pta. dagokio Udalari ordaintzea. Irudi Biziak izeneko enpresak presaturiko pelikulak eta unitate didaktikoak dira.

Ikasleei ezezik, hauen gurasoei ere zuzendua dago programa. Seme-alabek pelikula ikusten duten egun berean, gurasoentzako beste saio bat egon ohi da arratsaldeko 7etan. Urtean bost pelikula ematen dira eta bi alditan, pelikula emateaz gain, espezialista batekin eztabaida ere antolatzen da. Iazkoa izan zen gurasoekin lehen esperientzia eta Udaleko Drogomenpekotasunen teknikariaren esanetan "oso positiboa izan zen". Partaidetzari dagokionean batzbestek 80 bat guraso elkartziren saio bakoitzean.



ECCO T.T. S.A.
 Empresa de trabajo temporal
 Aut. Adm. Nº 79/0002 94
 Direccion General de empleo

HONAKO LANGILEAK BEHAR DITU

- Salmenta promotoreak
- Administratiboak
- Kajerak
- FP II Erreminta Makina, Mekanika, Elektronika, Kontrol Numerikoa
- Prentsa
- Mekaniko egokitzailak
- Soldadoreak
- Peoi industrialak

- Pintoreak
- Idazkariak
- Telefonistak
- Reponedoreak
- Muntatzaile mekanikoak
- Tornoak
- Fresadoreak
- Zamalanak
- Garbitzaileak
- AS 400 programatzaileak

BETEBEHARRAK:
 - Esperientzia
 - Deba behea-Garaian bizitzea.

Interesatuak bidali curriculum-a eta argazkia atera berria:
 143 Postakutxa ARRASATE



Ferrerias kalea 2
 (solairuartea)
 Tel. 79 57 00 Faxes: 79 20 17
 20500 ARRASATE

Joan den irailaren 19an "ECCO Trabajo Temporal"ek ordezkari berria zabaldu du **ARRASATE**n bezeroei eta Deba Behe eta Garaiko langileei zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz.

Isabel Bouzo, Raquel Belategui eta Alazne Mendiak zeuei laguntza eskaintzeko daude ECCO ARRASATE berrian.

Modan al dago **MODA**?

Pil-pilean egon den, dagoen eta egongo den gaia da. Moda, modan dago. Zer iritzi dute gure gazteek honen inguruan? Jarraitzen al dute? Garrantzirik ba al du?

- 1- Zer da moda?
- 2- Eta zuk jarraitzen al duzu?
- 3- Zein da zure estiloa?
- 4- Sekula jantziko ez zenukeena?
- 5- Datorren denboraldirako tendentziak?
- 6- Garrantzi gehiegi ematen al zaio modari?
- 7- Modelo bat?
- 8.- Eta gizonzkoren bat?



ANE ZUBIA

15 urte

- 1 -Urtaro bakoitzean ateratzen den arropa estilo ezberdina.
- 2 -Ez. Erropia erostera nixenian gustatzen jatana erosten dot, modan egon edo ez.
- 3 -Arropa eroso eta zabala gustatzen zait.
- 4 -Kanpanadun prakak.
- 5 -Kolore beltza eramango da gorriarekin konbinatuta, grisa, urdina... Arropa pegatuak eta txikiak eramango dira.
- 6 -Jendeak asko begiratzen dio, bai. Nere inguruan ez baina, beharbada, urte batzuetara ezberdina izango da guretzat ere.
- 7 -Claudia Schiffer.
- 8.- Marcus.



CARLOS ANGULO

15 urte

- 1 - Jendeak jarraitzen duen fenomeno bat. Jendea modaren arabera berdin joaten da.
- 2 - Neri moda ez jata bat ere inporta.
- 3 - Kolore ilunak gustatzen zaizkit, bakeroak, zapatilak edo botak eta musika ia dena bakalaoa izan ezik.
- 4 - Mokasinak ez nitxuzke inoiz jantziko.
- 5 - Ideiarik ere ez. Bueno, musikan, bakalaoa.
- 6 - Gaur egun ia jende guztia modaren atzetik dabil.
- 7 - Judith Mascó.
- 8.- AntonioBanderas da bat?

ELISABET GONZALEZ

15 urte

- 1 -Eramaten den zerbait, arropa, ile orrazkera... edozer.
- 2 -Modan dagoen hori gustatzen bazaizt bai.
- 3 -Bakeroak, arropa zabala, pegatuak izan gabe.
- 4 -Panazko gauzak ez nituzke jantziko.
- 5 -Arropa iluna eta panazkoa.
- 6 -Ez dakit... beharbada.
- 7 -Claudia Schiffer.
- 8.- Ez dakit.



PATRICIA RODRIGUEZ

15 urte

- 1 -Arropan, musikan eta abar gehien eramaten dena.
- 2 -Gehienetan gustatzen zaidana eramaten dut. Eramaten bada, hobeto, baina eramaten delako ez dut erosiko gustatzen ez zaidan zerbait.
- 3 -Prakak eta botak eramatea gustatzen zait. Erropa eroso eta zabala.
- 4 -Kanpanadun prakak eta txarolezko botak.
- 5 -Musikan bakalaoa eta euskal musika eta erropetan kolore ilunak.
- 6 -Bai, jendeak ez du jazten eramaten ez den zerbait. Garrantzia ematen zaio bai estiloari bai eta koloreei ere.
- 7 -Naomi Campbel.
- 8.- Marcus.



Salerosketak

GAC MOTOZIKLETA BAT saltzen dut. Lau urte ditu, beltza eta segurua dauka 96ko maiatza arte. Ia berria dago, 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

FRIGORIFIKO TXIKI BAT saltzen dut. Estrenatu gabe. 23.000 pta.
☎ 74 01 51

Opel Kadet GSI 1.800 inyección SS-AJ 76.000 km. salgai.
☎ 19 19 54

Motokultur bat (8cc, diesela, (PASCUALI), karroa eta surkadorea. Prezio ona.
☎ 74 11 29

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.
☎ 74 09 23

ARMAIRU BAT saldu nahi dut: biltzen den ohea, 6 kajo, bi sekreter eta abar... Prezio onean.
☎ 74 15 75

KANPING BAT SALTZEN DUT. 3 plaza. 5.000 pta. Berria.
☎ 74 37 34 Nuria

Etxebizitzak

ETXE BIZITZA BAT ALOKATU NAHI DUT Elgoibarren. Altzariak badauzka hobe.
☎ 74 28 36

Pertsona bat behar dut Donostiako OKENDO kalean PISUA konpartitzeko.
☎ 42 51 49

ELGOIBARREN PISUA OSATZEKO pertsona bat behar dugu.
☎ 88 42 59 Alaitz (asteburuetan)

LOGELA BAT daukat libre bi oherekin eta erropak ere garbituko nituzke.
☎ 74 09 44

ETXEBIZITZA BAT SALTZEN DUT EULOGIO ESTARTAN. Egoera oso onean dago.
☎ 74 10 46 Maite (Gauetz 10etatik 11etara)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO 2 pertsona behar ditut.
☎ 62 53 77

Ingelerako irakasle batek LOGELA BAT eta pentisio osoa edo sukaldean ibiltzeko aukera nahi ditut. (9 hilabete)
☎ 42 84 06 / 74 02 36 Richard

Lana

Neska bat ETXEKO EDOZEIN LAN EGITEKO PREST dago.
☎ 74 33 24 Maite

Eibarren kontsultarako prestatua dagoen LOKAL BAT alokatzen da.
☎ 79 85 24 Isabel

Atenditu ezin dugulako, LOGOPEDIA ZENTROA alokatzen da Eibarren.
☎ 79 85 24 Isabel

ANDRE BAT behar da bi pertsona nagusi zaintzeko. Goizeko 9etatik gaueko 9ak arte.
☎ 74 29 30

Emakume bat ETXEKO LANAK EGIN, NAGUSIAK ZAINDU ETA ABAR... egiteko prest dago
☎ 75 62 57 Mari Karmen

Partikularrak

OHoko KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.
☎ 68 20 42 / 67 06 49

ARTILE ESKULANGINTZA IKASTAROA emango dugu Goikola baserrian, Lasturren Interesatuek deitu:
☎ 19 90 82 Karmen

Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak (pedagogia) eta 7 urteko esperientziarekin OHO, IEE eta HSAOLEko klase partikularrak emango ditut euskaraz eta gaztelerez.
☎ 74 39 24 Maite

MARRAZKI TEKNIKO ETA DIEDRIKO KLASEAK ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA klaseak maila guztietan ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 10 27 82 Marian, gaueko 9,30etatik aurrera

Bestelakoak

Iaz UBI D gelan ibili zirenek afaria egingo dute urriaren 21ean. Joan nahi duena 7 etan King-kong-en ager dadila.

Karitasek BI OHE TXIKI (80 cm/ 90 cm.) koltxoiekin eta LABADORA bat behar ditut.
☎ 74 15 09 - 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak.....461111
 Txanda hartzeko.....743354
 Planning-a742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 Gurutze Gorria.....743864
 Mendaroko Ospitalea756264
 Drogomenpekotasun Z.741008
 Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
 PESA (Eibar).....102131
 Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
 Kirol Zerbitzua744415
 Kultura Zerbitzua742158
 Mendaroko Udala756100
 Ongizate zerbitzua...743736
 Udaletxea741050
 Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
 Elgoibarko Izarra.....741626
 IML.....741196
 Kontsumo Bulegoa ...743088
 Liburutegia743525
 Musika Eskola742145
 Mintxeta744315
 Parrokia.....740842
 Polikirodegia741361
 Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
 Jubilatuen Etxea.....740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
 I.M.H.74 41 32
 Institutua74 02 67
 Ikastola74 44 41
 L.H.I.....74 44 80
 Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
 El Diario Vasco74 40 73
 El Mundo74 27 59
 El Correo Español...74 10 82
 Egin.....10 84 21
 Zazpiki74 34 74

12 OSTEGUNA

12,00 PILARIKA EGUNA PILAR IKASTETXEAN

Meza Pilar Ikastetxean
Ondoren, 12,30etan Itxaropena abesbatzaren kontzertua
Jarraian Luch-a gurasoentzat
Antolatzailea: Pilar Ikastetxea

16,30 ZINEA

"La tribu de los Brady"

19,30-22,15 ZINEA

"Los juncos salvajes"

13 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"El primer caballero"

14 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

"El primer caballero"

15 IGANDEA

16,30 ZINEA

"La tribu de los Brady"

19,30-22,15 ZINEA

"El primer caballero"

16 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"El primer caballero"

17 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Los juncos salvajes"

19 OSTEGUNA

09,30-12,00 IRUDI BIZIAK-ZINEA

Ertainetako ikasleentzat
"Nell"

✓ Herriko Antzokian

19,00 IRUDI BIZIAK-ZINEA

Ertainetako gurasoentzat
"Nell"

✓ Herriko Antzokian

20 OSTIRALA

21,30 EGUNKARIAREN AFARIA

✓ Kiroldegian

Antolatzailea: Egunkariaren aldeko Batzordea

22,15 ZINEA

"La niña de tus sueños"

HIESaren Astea

• 16, ASTELEHENA

19,00 HIESari buruzko erakusketa
Kutxako lokalean (San Frantzisko)
Hilaren 22ra arte

• 17, ASTEARTEA

19,00 Hitzaldia
Gaia: HIESa eta akojidako etxeak.
Villa Betania
Kultur Etxean

• 18, ASTEAZKENA

19,00 Mahai informatiboak

• 19, OSTEGUNA

19,00 Hitzaldia
Gaia: HIESarekin bizi.
Hizlariak: Josu Imanol Unanue (T4ko kidea), Lierni Irizar eta Pipa Azaldegi (Harri-Beltzako kidea) eta Javi Madariaga (Adarra HIES-Ekimeneko kidea).
Kultur Etxean

• 20, OSTIRALA

22,15 Zinea
"La niña de tus sueños"

• 22, IGANDEA

13,00 HIESaz hildakoen omenaldia
Haritz, Bertso Eskola, Txalaparta eta Bereziki taldeekin.

Jarraian: Giza katea
Plaza Handian

Antolatzailea: Errotatxo

Laguntzailea: Zazpiki Irratia

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
12, osteguna:	Yudego	Yudego
13, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo
14, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
15, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
16, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
17, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
18, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
19, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
20, ostirala:	Yudego	Escala

FARMAZIEN HELBIDEAK:

OKINDEGIA:

12, osteguna: DONA MERCEDES

15, igandea: EIZAGIRRE



Los juncos salvajes

Zuzendaria: André Techné

Antzezleak: Elodie Bouchez, Gaël Morel, Stéphane Rideau, Michèle Moretti.

Lau gazte, hiru mutil eta neska bat, Frantziako hegomendebaldeko institutu batean ikasketak burutzen ari dira. 1962. urtea da, Frantzia eta Argeliaren arteko istiluak gertatzen diren sasoiak. Lau lagunen artean harreman berezia eta sakona sortuko da. Laurak dira ezberdinak, baina beraien arteko adiskidetasuna oso sendoa da.

El primer caballero

Zuzendaria: Jerry Zucker.

Antzezleak: Richard Gere, Sean Connery, Julia Ormond.

Camelot herrira heltzen da Lancelot gudari gartsu eta ausarta. Baina oraingoan maitasun bila dabil Lancelot. Lady Ginebrak maitemindua dago baina ezin du bere maitasuna lortu Ginebrak Arturo erregearekin ezkontzeko erabakia hartu baitu. Ezustean baina, bi gazteak elkar ezagutzeko aukera izango dute eta Ginebraren bihotzetan sugar berria sortuko da.

BEGIRALE TITULUDUNEKIN

Ama, nik ere
nahi dot!



OHOKO
2-3-4-5. mailak

Datak

Urriak: 21-28

Azaroak: 4-11-18-25

Abenduak: 2-16

Prezioa

2.000 pta.

Ekintzak

Jolasak

Antzerkia

Esku lanak

(buztina, txotxongiloak...)

Sukaldaritza...

Izena emateko

Elgoibarko Izarra K.E.

Ubitarte 4, behea

Tel. 74 16 26

Ordutegia

16,00 -19,00

Izena emateko epea

Urriaren 16tik - 20ra

ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra K.E.





LAGUNTZAILEAK:
Elgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia





BLANC BLEU



Urrian txartel hau ekartzen dutenei
%10eko deskontua **JAKETAN.**